BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

4376

EBAZPENA, 2013ko ekainaren 6koa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, IEFPS Don Bosco GLHBI delakoari, profesional baimenduak prestatzeko, aitortutako erakunde gisa jarduteko baimena berriztatu eta espezialitate berrietan jarduteko baimena ematen diona.

Esp. zk./ Gaia: SEG/0039/2013.

AURREKARIAK:

Bat.– Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendariaren eta Energia eta Meategien zuzendariaren 2008ko martxoaren 13ko Ebazpenaren bitartez (2008-04-18ko EHAA), zenbait espezialitatetan profesionalak prestatzeko, IEFPS Don Bosco GLHBI delakoa Erakunde Aintzatetsitzat aitortu zen. Hauek dira espezialitateok:

– Iturgintzako banakako kualifikazio-agiria.

– Eraikinetako Instalazio termikoetarako banakako kualifikazio-agiria.

– Hozkailu-instalazioetarako banakako kualifikazio-agiria.

– Hozkailu-instalazioak kontserbatu edo konponketarako banakako kualifikazio-agiria.

Bi.– IEFPS Don Bosco GLHBI delakoaren ordezkaritzak, 2013ko urtarrilaren 25ean, profesionalak prestatzeko aitortutako erakunde moduan aritzeko baimena berriztatzeko eskabidea aurkeztu zuen, industria-segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzen dituen dekretuaren arabera. Eskabidea aurretik aitortuta zituen espezialitateetarako eta, gainera, ondoren adierazten den espezialitate berrietarako egin zen.

– Edozein kopuruko fluordun hozgarri kargarekin diharduten hozkailu-sistema daukaten ekipoen maneiatzailea (GF 1).

– 3 kg baino gutxiagoko fluordun hozgarri kargarekin diharduten hozkailu-sistema daukaten ekipoen maneiatzailea (GF 2).

– Ibilgailuetako fluordun gas karga daukaten girotze ekipoen maneiatzailea (GF 3).

– Itzaltzaile bezala fluordun gasa erabiltzen duten suteen aurkako ekipoen maneiatzailea (GF 4).

– Fluordun gasetan oinarriturik dauden disolbatzaileen eta horiek erabiltzen dituzten ekipoen maneiatzailea (GF 5).

– Gas instalatzaile banakako kualifikazio-agiria, B kategoria.

– Petrolio ekoizkin likido instalazioetarako banakako kualifikazio-agiria, ICL 1.

Hiru.– Eskabide horrekin batera, martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuaren V. Kapituluan aurreikusitako eskakizun eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu ziren. Industria-segurtasunaren alorrean, norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzen ditu dekretu horrek. Aurkeztutakoak honakoak dira:

– Entitatearen identifikazio-datuak zeinen egoitza Errenterian, San Markoserako Errepidean (P.K. 20100) dago.

– Prestakuntza-jarduerak gauzatzeko entitateak dituen giza baliabideen deskribapena.

– Garatuko diren ikastaroei buruzko zehaztapenak, gaiak, metodologia, antolakuntza eta ebaluazio-sistemak xehetasunez azalduta.

Lau.– 2013ko martxoaren 14an, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkariak, IEFPS Don Bosco GLHBI erakunde aintzatetsiaren baimena, ondoren zehazten diren espezialitateetan berritze eta zabaltzearen aldeko txostena luzatu zuen:

– Barruko ur-instalazioak: IA.

– Instalazio termikoak eraikinetan: IMT.

– Gas istalazioak: IGB.

– Petrolio ekoizkin likidoak: ICL 1.

Txosten horretan bertan hozkailu-instalazioen espezialitatean baimena berritzearen aurka agertzen da.

2013ko apirilaren 30ean, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Lurralde Ordezkariak aipatu txostenaren txosten osagarri bat luzatu zuen. Bertan IEFPS Don Bosco GLHBI erakunde aintzatetsiaren baimena, ondoren zehazten diren espezialitateetara zabaltzearen alde agertzen da:

– Itzaltzaile bezala fluordun gasa erabiltzen duten suteen aurkako ekipoen maneiatzailea (GF 4).

– Fluordun gasetan oinarriturik dauden disolbatzaileen eta horiek erabiltzen dituzten ekipoen maneiatzailea (GF 5).

Espedientea ebazterakoan beharrezkoa da honako zuzenbideko oinarri hauek aintzat hartzea eta haiei buruzko aipamena egitea:

ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

Bat.– Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 190/2013 Dekretuaren 13. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariari dagokio ebazpen hau ematea.

Bi.– Industria-segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartela eta enpresa baimenduak arautzen dituen martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuaren 26. artikuluan ezarritakoaren arabera, prestakuntza-ikastaroak emateko gaur egun onetsita dauden erakundeek baimena 5 urtean behin berritu behar dute, Dekretu horren 25. artikuluan ezarritako baldintzak eta betebeharrak bete dituztela egiaztatu ondoren.

Hiru.– Hozkailu-instalazioen segurtasun erregelamendua onartzen duen Errege Dekretua (otsailaren 4ko 138/2011 Errege Dekretua) indarrean sartu zenetik, eta bere 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, ezin da hozkailu-instalaziotan banakako kualifikazio agiria lortu horretara zuzenduriko ikastaro batzuk gainditzearen bidez. Beraz, Lurralde Ordezkaritzako txostenean zuzen jasotzen den bezala, ezin da espezialitate horretarako erakunde aintzatetsi baimena berritu.

Lau.– Fluordun gasen maneiatzaile espezialitateei dagokionez, ekainaren 16ko 795/2010 Errege Dekretuak xedatutakoaren arabera, lanbide-heziketako ikastetxeak gaituak daude Errege Dekretuan bertan arautzen diren fluordun gasei buruzko ikastaroak emateko, baldin eta hauek zuzeneko lotura badaukate beraiek ematen dituzten irakasgaiekin. Alderantziz, beraiek ematen dituzten irakasgaiekin zerikusirik ez daukaten fluordun gasen ikastaroak eman nahi badituzte, edo, nahiz eta zerikusirik izan, araututakoak baino ordu gutxiagokoak baldin badira, lanbide heziketako ikastetxeak behartuta daude erakunde aintzatetsi baimena eskatzea, eta 63/2006 Dekretuak eskatzen dituan baldintzak betetzea.

IIEFPS Don Bosco GLHBI erakundeak Hezkuntza Sailaren aurrean izapidetua dauka, ondoren zehazten diren fluordun gasak maneiatzeko gaitasunaren egiaztagiriarekin, zerikusi zuzena duten lanbide heziketa tituluak lortzera zuzenduak dauden prestakuntza zikloak emateko baimen eskaera:

– Edozein kopuruko fluordun hozgarri kargarekin diharduten hozkailu-sistema daukaten ekipoen maneiatzailea (GF 1).

– 3 kg baino gutxiagoko fluordun hozgarri kargarekin diharduten hozkailu-sistema daukaten ekipoen maneiatzailea (GF 2).

– Ibilgailuetako fluordun gas karga daukaten girotze ekipoen maneiatzailea (GF 3).

Halaber, IEFPS Don Bosco GLHBI erakundeak ematen dituen prestakuntza zikloek ez daukate zerikusirik «Itzaltzaile bezala fluordun gasa erabiltzen duten suteen aurkako ekipoen maneiatzaile (GF 4)» eta «Fluordun gasetan oinarriturik dauden disolbatzaileen eta horiek erabiltzen dituzten ekipoen maneiatzaile (GF 5)» espezialitateekin eta, ondorioz, hauei dagozkien prestakuntza egitasmoak eta beraiek emateko egokiak diren giza baliabideak edukitzearen egiaztapena eskatu zitzaion eta eskaera hau, 2013ko apirilaren 26an, bete zuen erakundeak.

Bost.– Garatu beharreko ikastaroei buruzko kreditazio nahikoa aurkeztu da, eta zehaztu egin dira gai-zerrendak, metodologia, antolakuntza eta ebaluatzeko aurreikusitako sistemak, bai berriztatu beharreko espezialitateei bai baimendu beharreko espezialitateei dagokienez.

Sei.– Justifikatu egin dira, halaber, erakundeak espezialitate ezberdinetan ikastaroak emateko dituen giza baliabideak, berriztatu zein baimendu beharreko espezialitateetan.

Zazpi.– Labur esanda, martxoaren 14ko 63/2006 Dekretu horretan ezarritakori jarraituz izapidetu da prozedura, eta erakunde eskatzaileak, bere aldetik, dekretu horren 25. artikuluan jasotako egiaztagiri nahikoak aurkeztu ditu.

Aipatutako lege-manuak eta oro har eta gai honetan aplikatzekoak diren gainerako xedapen guztiak aintzat hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.– Industria segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzen dituen martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuan ezarritakoari jarraituz, IEFPS Don Bosco GLHBI delakoari, profesional baimenduak trebatzeko erakunde aintzatetsi gisa jarduteko baimena, ondoren zehazten diren espezialitateetara berritzea eta zabaltzea:

– Barruko ur-instalazioak: IA.

– Instalazio termikoak eraikinetan: IMT.

– Gas istalazioak: IGB.

– Petrolio ekoizkin likidoak: ICL 1.

– Itzaltzaile bezala fluordun gasa erabiltzen duten suteen aurkako ekipoen maneiatzea (GF 4).

– Fluordun gasetan oinarriturik dauden disolbatzaileen eta horiek erabiltzen dituzten ekipoen maneiatzea (GF 5).

2.– Fluordun gas maneiatzaile beste hiru espezialitateei buruz, ez da eskatutako baimena eman behar, IEFPS Don Bosco GLHBI ikastaroak emateko ikastetxe gaitua baita, ekainaren 16ko 795/2010 Errege Dekretuak xedatutakoaren arabera.

3.– Hozkailu instalazioetarako banakako kualifikazio agiria lortzera zuzenduta dagoen espezialitatean eskatutako berritzea ukatzea, zeren eta, otsailaren 4ko 138/2011 Errege Dekretuak, Hozkailu-instalazioen segurtasun erregelamendua onartzen duenak, ez baitu aurreikusten, horretara zuzenduriko ikastaro batzuk gaindituz, hozkailu-instalaziotan banakako kualifikazio agiria lortzeko aukera.

4.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

5.– Erakunde Aintzatetsi orok bete beharko ditu legezko xedapenek eta erregelamenduzkoek ezartzen dituzten eginbeharrak; bereziki, martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuaren V. kapituluan aurreikusitakoak eta hauen artean aipagarria da, gutxienez ondorengoak aipatzen dituen jardueten memoria bat urtero aurkezteko eginbeharra:

1) Espezialitate bakoitzean emandako ikastaro eta burututako proba kopurua.

2) Ikastaro edo proba bakoitzean parte hartu duen jende kopurua.

3) Gaitasun-probak gainditu dituzten profesionalen kopurua, espezialitate ezberdinak zehaztuko direlarik.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jar dakioke Industriako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunetik hasita. Hori guztia, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107. artikuluan eta hurrengoetan azaltzen denari jarraikiz.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 6a.

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
JAVIER ZARRAONANDIA ZULOAGA.